

Kaixo laguna:

Agian pentsatuko duzu azkenaldi honetan eman den euri-jasa faxistaren ondoren, erantzun dinamika bat planteatzera gatozela. Erantzuna beharrezkoa da, kalera atera behar da. Horretarako aukerarik izan dugu eta izango dugu aurrerantzean ere. Hainbeste zaborra etxeko bakardadean entzun eta irakurtzea barrenak goibeltzen dizkigu. Beraz, mobilizazioetan parte hartzea, eskubideen defentsa praktikoa izateaz gain, buru eta bihotzaren osasunerako ariketa ere bada. Etsipenak tristezia dakar, borrokak eta elkartasunak bizi-poza. Kendu nagia eta zatoz beraz, euskaldun askeon festara.

Batzuetan ordea, etengabeko errepresioaren eraginez aria galdu eta erantzunetan murgilduak, geure benetako lanetatik urrundu gara. Ikasi dugu ordea. Ikasi dugu gatazka ez dela estatuak eta ezker abertzalearen artean eta herri bezala erantzun behar dugula, ados jartzea nekeza eta deserosoa izan arren. Eta, batez ere, **ikasi dugu erasoen gainetik eraikitzen jarraitu behar dugula.**

Horregatik, hurrengo batzarra ez da izango erasoetaz hitz egiteko, ez da izango PNVren jarrera lotsagarriaren inguruan buelta antzuak emateko... **Hurrengo batzarra, Altzan geure helburuetan nola sakontzen dugun aztertu eta lan horiei berrindartuak ekiteko izango da: euskara, udalgintza, kultura, presoak.... Horretarako bilduko gara otsailaren 4an, larunbata, goizeko 10tan, Herrerako Auzotegian.**

Arlo desberdinetan zer egin dugun eta nola gauden aztertuta, hurrengo hilabetetako helburuak finkatuko ditugu. Arlo horietan Altza nola dagoen eta nola eraldatuko dugun aztertuko dugu. Eta horretarako iritzi eta konpromezu xumeena ere beharrezkoa da, bakoitzak eman dezakeena. Parte-hartze murrizak, azterketa murrizak dakartza eta azterketa murrizak ekimen eskasak. Kendu nagia eta zatoz beraz, euskaldun askeon festara.

Hau da gure hurrengo hitzordua

<p>BATZARRA Otsailak 4, larunbata Goizeko 10tan Herrerako Auzotegian</p>
--

ALTZAKO BATASUNA

Altza, 26 de enero de 2006

Kaixo laguna:

Quizás pensarás que con la que ha caído venimos a plantear una dinámica de respuesta. La respuesta es necesaria, hay que salir a la calle... Hemos tenido y tendremos oportunidades para ello. Escuchar tanta basura en la soledad de casa entristece a cualquiera. Participar en las movilizaciones, además de ser una defensa práctica de los derechos, ejerciéndolos, supone un saludable ejercicio para la mente y el corazón. La resignación acarrea tristeza, la lucha y la solidaridad bizi-poza. Quítate la pereza y ven a la fiesta de los euskaldunes libres.

Sin embargo, en más de una ocasión, a causa de la permanente represión, hemos perdido el hilo y sumergido en las respuestas, nos hemos alejado de nuestras verdaderas tareas. Pero hemos aprendido. Hemos aprendido que el conflicto no es entre los estados y la izquierda abertzale y que debemos responder como pueblo, aunque ponerse de acuerdo sea incómodo y trabajoso. **Y sobre todo hemos aprendido que por encima de los ataques, hemos de continuar construyendo.**

Por eso, la próxima asamblea no será para tratar de los ataques, no será para dar vueltas estériles sobre la vergonzante actitud del PNV... **La próxima asamblea será para analizar cómo avanzamos en nuestros objetivos en Altza: euskara, udalgintza, kultura, presos... Para eso nos reuniremos el sábado, 4 de febrero, en el Auzotegi de Herrera a las 10 de la mañana.**

Analizando qué hemos hecho y cómo estamos en cada ámbito, fijaremos los objetivos para los próximos meses. Analizaremos cómo está Altza y cómo la vamos a transformar. Para eso, necesitamos hasta la opinión y el compromiso más humilde, el que cada una pueda dar. Necesitamos todos porque una participación pequeña conlleva análisis parciales y estos, iniciativas pobres. Quítate la pereza y ven a la fiesta de las euskaldunes libres.

Esta es nuestra próxima cita:

<p>ASAMBLEA Sábado, 4 de febrero 10 de la mañana Auzotegi de Herrera</p>
--

ALTZAKO BATASUNA